

EBAZPENA, 2020ko irailaren 7koa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearena, UPV/EHUko lanpostu bat izendapen askearen bidez betetzeko deialdi publikoa ebazten duena.

BILBOKO INGENIARITZA ESKOLArako Administrazio burua lanpostua betetzeko deialdian, ezarritako epean ez denez eskaerarik aurkeztu, eta deialdia erabakiaren laugarren oinarria betetzeko, eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearekin bat etorritik (1989ko uztailaren 28ko EHAA), Gerentziak, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak 2017ko urtarrilaren 25ean hartutako erabakia, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena (2017ko otsailaren 3ko EHAA) erabiliz, honako hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa: Behean azaltzen den lanpostuaren prozedura amaitutzat jotzea, eta deialdia hutsik gelditu dela adieraztea

- Izena: Administrazio burua
- Erref.: F 1162
- Eskala: Gestio Teknikaria
- Taldea: A
- Zenbatgarrena: 5
- Maila: 26
- Hizkuntza eskakizuna: 3 ; derrigorrezko data:
- Langunea: BILBOKO INGENIARITZA ESKOLA
- BE:
- Campusa: BIZKAIA

Bigarrena.- Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du eta bere aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da Gerentzia honen aurrean, hilabeteko epean. Nahiago bada, administrazio-auzietako errekurtsoa jarri ahal izango da zuzenean Administrazio Auzietako Epaitegi egokian; horretarako hilabete bi egongo dira, Ebazpen hau argitaratzen den egunaren biharamunean hasita. Hori guztia, Unibertsitateko Estatutueta 160. artikuluan, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeko 123. artikuluan eta uztailaren 13ko Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legeko 8. eta 14. artikuluetan ezarritakoa betetzeko.

Leioan, 2020ko irailaren 7an

Gerentea,

Miren Lorea Bilbao Arteché

